

Herioa Baztan magikoan

Testua: Iraitz Urkulo
Argazkiak: Alberdania / Erein

Zaindari ikusezina / Dolores Redondo (Josu Zabaleta) / Erein, 2013




lbilbide ezohikoa egiten ari da Dolores Redondoren "Baztango trilogia" deitutakoa. Izan ere, hiru liburuetako lehena, *Zaindari ikusezina* izenburua daraman eleberria hain zuzen, bederatziz hizkuntzatan ira kurri daiteke jada. Testu originala gaztelaraz egonik, Erein argitaletxea eta Josu Zabaletari zor diegu euskarazko itzulpena. Hori gutxi balitz, dagoeneko NadCon ekoiztetxea, Millenium saga pantaila emaldora eraman zuen bera, Redondoren lanak zinematartzeko eskubideen jabe da.

Eleberriaren inguruan sortutako iskanbilak hurrengo galderetara narama ezinbestean: zer dela eta hainbesteko interesa? Zer ikusi diote Italia edo Norvegiako editoreek, besteren artean, obra hau hain irakurleen eskura jami nahi izateko? Zer du, bada, berezi istorio honek, hango jatorrizko literaturan topatu ezin dutena? Galderei erantzun emateko nik bi alderdi nabarmenduko nituzke. Alde batek, protagonistak argitu beharreko neska gazteen hilketak Elizondo inguruan kokatu izanaren ondorioz, hango giro misteriotsu eta itxiak, eta alegiazko mundua gidatzen duten indar ezkutuek kontaketa ku tsatu eta aberasten dute, testuinguru ezin aproposagoa eskainiz genero beltzeko argumentuari.

Bestalde, nabarmentzekoa da euskal mitologiako hainbat pertsonaiaren (Basajauna, Mari...) agerpena, baita kondaira eta siniskerien aipamena ere. Azkenik, Elizondoko kale eta negozioren gaineko zehaztasunak eta bertan hazi eta bizitza osoa igarotako jendearen izaera eta bizimoduaren deskribapenak ere aintzat hartzekoak dira. Hiru alderdi hauek adierazten dutena zera da: *Zaindari ikusezina* gure gurea da, ezin zitekeen beste inon idatzi, hori du berezi, eleberriarekin batera euskal kulturaren zati bat ere kanpoan ezagutarazten dugula. Era berean, bali teke ukitu exotikoak zenikusia izatea liburua nazioartean izaten ari den arrakastarekin.

Hasiara batean, une batez baino ez bada ere, Amaia Salazar inspektoreak Itxaro Borden Amaia Ezpeldoi detektibea gogorazi dit izena, emakumeak, antzeko lanbideak, biak saga bateko protagonistak... Kontu batean behintzat bat datoz Borda eta Redondo: beren lanetan emakumeek eskuratzen duten garrantzian. *Zaindari ikusezina* eleberrian autoreak euskal ma triariakua irudikatzen du, horretarako erabakimen handiko emakumeak lehen planora ekarri ditu, gizonak (senarrak, lankideak) laguntzaile huts izatera mugatuz, gehienetan emakumeen je



“Elizondotarrek gogor eutsi zioten elizaren ondoan, hura gizonentzako lekua ez zela, bailara erdiko leku hura mendietako espirituena, iturrietako deabruena, lamiena eta basajaunarena zirela adieraziz bezala, dena eman eta dena kendu, gogoak

ematen zion bezala, egiten zien Baztan ibaiaren bihurtune hari atxikirik. Inon den basorik misteriotsu eta magiazkoena, Baztango baso ospetsua, orain hilketaren izugarrikeriak zikitzen zuen”



nio biziaren menpe agertzen direla. Halere, bada istorio honetako emakume protagonistarengan ahulgune sakon bat, gaixotzeraino daramana: ama izan nahi eta ezinaren kezka. Eta narrazioak aurrera egin ahala, kezka hori jaiterrira itzultzea rekin bat bere baitan bortizki esnarazi eta agerian geratuko den haurtzaroko trauma batekin nahasita azaleratuko zaigu.

Hilketak batzuen inguruko misterioaren argitze prozesuan oinarritutako eleberri batek funtsezkoa du amaiera arte tentsio narratiboari eustea, hiltzailea agerian geratzen den une gorenera arte behintzat. Horretarako, narratzaileak krimenen kasuan aurrera egitea ahalbideratzen duten egiazko pista eta irakurlea nahastera daramaten beste hainbat pista oker modu trebean tar teka ditzan ezinbestekoa iruditzen zaiz. Ezustekoz beteriko egitura landua da, azken batean, genero beltzeko lanen bereizgarri nagusietako bat. Bada, istorioan hiltzailearen identitatea lehen kolpean aurreikusitako daitekeela esatera iritsi gabe, agian argumentuak korapilo nahiko ez erakusteagatik, edo ekintzan pertsonaia gutxiak parte hartzeagatik beharbada (hauek Amaia Salazar inspektorearen familia eta lankideei dagozkionak baino ez dira), kontakizunak intriga mantentzeko ahaleginetan huts egiten duelako inpresioa dut, hain da laburra balizko errudunen zerranda.

Hori bai, Baztango trilogia honi oraindik bi liburu geratzen zaizkio osatzeko, beste bi aukera, beraz, ira kurlu hau bereganatzeko.

IRAKURZALEA ZARA?

Liburu bat eskuratu nahi duzu?

Sartu bertonaldirazlaria wordpress.com-en eta parte hartu gure ZOKKETAN

MESÓN URETXE
Santutxuko poteo gunean

Elektriko eta instalazio instalazioak
J. Ruíz
*Obrak, mantentzeak eta reparazioak instalazioak
*Akumulatoriak, bertako elektrikoak eta instalazio biko konexioak
*Portuak, abarrikak, eta instalazioak
*Bereizgarriak

Kafe Mañari
Médico M. Pedro Cortés, 9 - 48006 BILBAO
Telf. 94 411 99 33

BIZKAIA
92.5
90.7
97.4
97.6
96.1
102.6